



KULTURA PROGRAMAZIOA  
2020 BERGARA


MUSIKA  
DANTZA  
ANTZERKIA  
HAURRENTZAT EMANALDIAK

Urtarrila - Maiatza  
Enero - Mayo




S E M I N A R I X O A


## PLANOA / PLANO



C zona



B zona



A zona

ESZENATOKIA

## Sarrerak / Entradas

Seminarixoko emanaldietako sarrerak eskuratzeko bi bide daude:

- Seminarixoko txarteldegian ostegunero 18:00etatik 20:00etara.
- [ticket.kutxabank.es](http://ticket.kutxabank.es) webgunearen bitartez.

Hileko lehenengo ostegunean jarriko dira, hurrengo hilabeteko sarrerak salgai.

Las entradas para las actuaciones de Seminarixoa se podrán adquirir de dos maneras:

- en la taquilla de Seminarixoa todos los jueves entre las 18:00 y las 20:00.
- en la web [ticket.kutxabank.es](http://ticket.kutxabank.es)

A partir del primer jueves de cada semana se pondrán a la venta las entradas para el mes siguiente.



# KULTURA PROGRAMAZIOA 2020 BERGARA

## Musika

Urtarrilak 12	13.00	B. Txistulari Banda	Pleno aretoan	Doan
Urtarrilak 25	19.00	Dama Beltzak	Seminarixoan	8 €
Urtarrilak 26	12.30	Bergarako Musika Banda	Frontoian	Doan
Otsailak 21	22.30	B. Musika Banda/ Orkestra Sinfonikoa	Frontoian	8 €
Otsailak 23	13.00	B. Txistulari Banda	Pleno aretoan	Doan
Martxoak 07	19.00	Amak eta Ain_1	Seminarixoan	8 €
Martxoak 15	13.00	B. Txistulari Banda	Pleno aretoan	Doan
Martxoak 27	Apirilak 4	Apirilean Musika		
Martxoak 29	12.30	Bergarako Musika Banda	Frontoian	Doan
Apirilak 26	12.30	B. Musika Banda	Frontoian	Doan
Apirilak 26	19.00	B. Txistulari Banda	Irala kalean	Doan
Maiatza 02	19.00	Ainara Ortega	Seminarixoan	8 €
Maiatza 24	12.30	Udaberriko kontzertua	Frontoian	2/4 €

## Familiarendako ikuskizuna/ Espectáculo familiar

Urtarrilak 11	18.00	Zineko itzalak	Seminarixoan	4 €
Urtarrilak 18	18.00	Kaskarot	Seminarixoan	4 €
Otsailak 22	18.00	Bizi dantza	Frontoian	6 €
Otsailak 29	18.00	Ikimilikiliklik	Seminarixoan	4 €
Martxoak 21	18.00	Safari	Seminarixoan	4 €
Apirilak 25	17.00/18.30	O!	Seminarixoan	4 €
Maiatzak 09	18.00	Erbia eta dortoka	Seminarixoan	4 €

## Antzerkia / Teatro

Urtarrilak 17	19.00	La mudanza	Seminarixoan	8 €
Otsailak 08	19.00	Zaldi urdina	Seminarixoan	8 €
Otsailak 15	19.00	Ene ba!	Seminarixoan	8 €
Martxoak 14	19.00	Yo nunca	Seminarixoan	8 €

## Dantza

Otsailak 01	19.00	Gorria	Seminarixoan	8 €
-------------	-------	--------	--------------	-----

## Bertso jaialdia

Apirilak 03	22.00	Eramu Zapatu bezpera bertso jaialdia	Seminarixoan	8 €
-------------	-------	--------------------------------------	--------------	-----



**Familiarendako ikuskizuna / Espectáculo familiar**

Sarrera / Entrada: 4€

VALERIA GUGLIETTI



## 'Zineko itzalak'

Valeria Guglietti Argentinako artista bat da, eta itzalen bidez filmee-tako pertsonaia ezagunak eta guztiondako ezagunak diren eszenak interpretatzen ditu. Eskuekin soilik, hitz egin gabe, guztion bistan, eta pertsonaiak nola sortzen dituen guztioi erakutsiz; edonori bere itzalekin jolasteko gogoia pizten dio. Valeria Gugliettik ibilbide oso luzea dauka eta nazioarteko ehunka jaialditan parte hartu du; are gehiago ikuski-zun honek sari ugari batu ditu herrialde askotan.

Valeria Guglietti es una artista argentina que con el único uso de sus manos y a través de las sombras interpreta personajes y escenas conocidas del cine. Sin hablar, a la vista de todos y mostrando cómo crea los personajes; tienta a cualquiera a jugar con sus sombras. Valeria Guglietti tiene un amplio recorrido y ha visitado numerosos festivales internacionales, donde ha recibido numerosos premios.

12 Urtarrila Enero  
23 Otsaila Febrero  
15 Martxoa Marzo

26 Apirila Abril

## Musika

---

Sarrera / Entrada: Doan

---



## Begarako Txistulari Banda

**Urtarrilak 12, Otsailak 23, Martxoak 15:** Pleno aretoan. 13.00  
**Apirilak 26:** Irala kalean. 19.00

Jose Miguel Laskurain zuzendari duen Bergarako Txistulari Banda oso sasoi onean dago. Herriko ekitaldi garrantzitsuetan, auzoetan... non -nahi jartzen du Txistulari Bandak bere alea. Eta Udaletxeko pleno aretoan eskaintzeko kontzertu bereziak prestatu ditu, anitzak eta sorpresaz beteak. Lau emanaldi iragarri dituzte datozen hilabeteetarako.

Begarako Txistulari Banda dirigida por Jose Miguel Laskurain está en muy buena forma. Pone lo mejor de sí en todo tipo de acontecimientos, festividades locales y eventos. La Banda de Txistularis ha diseñado varios conciertos especiales para el Salón de plenos municipal, variados y con sorpresas. La cuarta actuación, en caso de que el tiempo sea propicio, será en la calle Irala.

**17****Urtarrila  
Ostirala****Enero  
Viernes****19.00****Antzerkia / Teatro**

Sarrera / Entrada: 8€

Hizkuntza / Idioma: Castellano

Iraupena / Duración: 80'

**COMPañIA PERIGALLO  
TEATRO****'La mudanza'**

Javier Manzanera eta Celia Nadal aktoreek ikusleak hunkituko dituzte Teatro de Rojas eta Certamen Noctivagos jardunaldietan saritutako obra honekin. Hauskortasuna, inmigrazioa eta etxe-desjabetzeak ditu helduleku. 1961an bikote batek Alemaniara jo beharko du etxea ordaindu ahal izateko. 2011n, bikote horren bilobak eta senarrak etxe bera galduko dute bankuaren alde. Arazo bera krisi garai desberdinetan. Komedia eran landutako egungo drama, bizitza pentsaera aldatzen lagunduko diguna.

Los actores Javier Manzanera y Celia Nadal conmueven al público con una obra nominada y premiada en los festivales de Teatro de Rojas y Certamen Noctivagos.

Versa sobre la fragilidad, la inmigración y los desahucios. En 1961, un matrimonio tiene que emigrar a Alemania para trabajar y pagar su casa. En 2011, su nieta y el marido de esta rehipotecan la misma casa y el banco se la queda. Mismo conflicto en dos momentos de crisis. Un drama en clave de comedia que obliga a mudar de visión de vida.

**18****Urtarrila Enero  
Larunbata Sábado****18.00****Familiarendako ikuskizuna / Espectáculo familiar**

Sarrera / Entrada: 4€

6 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza / Idioma: Euskara

Iraupena / Duración: 50'

ATX TEATRO



## 'Kaskarot'

Atx konpainiaren obra berriena da 'Kaskarot', 2019ko abenduan estreinatutakoa. Hausnarketa garrantzitsua bultzatu nahi du; hain zuzen ere, gure burua etengabe ingurukoekiko, besteekiko, konparatzen aritzeari uztea. Eta berreskuratzea gurea den esentzia, irudimena, berezkotasuna eta errebeldia. Beste modu batean esanda bizitzari beste begi batzuekin begiratzea. Horretarako, Aner (Kaskarot) ezagutuko dugu. Dantza egitea maite du Anerrek, baina debekatuta dauka.

'Kaskarot' es la obra más reciente de la compañía Atx, recién estrenada en diciembre de 2019 en Barakaldo, y quiere lanzar una reflexión muy importante: que dejemos de compararnos constantemente con el resto. Y que recuperemos nuestra propia esencia, imaginación y rebeldía. Dicho de otra manera, que volvamos a reparar en la vida con otra mirada. Para ello, conoceremos a Aner (Kaskarot). Aner ama bailar, pero lo tiene prohibido.



## Musika

---

Sarrera / Entrada: 8€

Iraupena / Duración: 80'

---



## Dama Beltzak

---

Musika bikaina interpretatzen duen talde ederra izateaz gain, musikaren bitartez iraultza eta borroka egiten zuten dama beltz haiei merezitako onespén xumea da Dama Beltzak. Mugimendu musikal eta sozialaren erreginak izan ziren Ella Fitzgerald, Nina Simone, Roberta Flack, Etta James eta Aretha Franklin, besteak beste. Ahazturan gera ez daitezén, bost emakume ausart hauen bizitzak kontatu eta haien abestiak kantatzen dituzte. Estitxu Pinatxoren ahotsa oinarri, pianoarekin eta gitarrarekin lagunduta.

Además de ser una banda que interpreta un show formidable, Dama Beltzak es también un reconocido homenaje a aquellas grandes mujeres que hicieron la revolución a través de su música. Hablamos de Ella Fitzgerald, Nina Simone, Roberta Flack, Etta James y Aretha Franklin. Para que nunca queden en el olvido, esta banda cuenta sus historias y canta sus canciones. Estitxu Pinatxo a la voz, acompañada de piano y guitarra.

**Musika**

Sarrera / Entrada: Doan



## Bergarako Musika Banda

Bergarako Musika Banda, mende eta erdian egindako lanaren ondorioz, erreferentea da bergarar guztientzat eta jarraitzen du uneoro birsortzen eta birrasmatzen, musika zaleoi sorpresa atseginak eskaintzen. Bergara sortu zenean jada bazegoen ia; beti egon da hor, mende luzea dauka bizkar gainean. Baina, hala ere, inoiz baino sasoi onean dago eta zuzendari berriarekin, Enrike Txurruka. Belaunaldiz belaunaldi eutsi dio Bergarako tradizioari eta modernitateari lekua egin dio.

La Banda de Música de Bergara, gracias al trabajo encomiable realizado durante más de siglo y medio, es un referente para todo Bergara. Y sigue reinventándose continuamente, ofreciéndonos a todos y todas los aficionados/as a la música grandes sorpresas. Para cuando se fundó Bergara casi estaba ya; siempre ha estado ahí, cuenta con un largo siglo de vida. Aún así, está en su mejor momento y este pasado año ha estrenado director, Enrike Txurruka. Siempre ha sabido aunar tradición y modernidad.

**Dantza**

Sarrera / Entrada: 8€

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

Iraupena / Duración: 80'

LANKU



## 'Gorria' dantza emanaldia

Miren Amuriza bertsolariaren eta Askoa Etxebarrieta flamenko dantzariaren arteko elkarrizketa artistikoa da 'Gorria'. Muin bera dute biek adierazpide, bat-batekotasuna. Ikuskizunean nor bere hizkuntzan kantatzen edo dantzatzen hasiko da eta gerora kodeak konpartituta eraikiko dute. Kolore gorriaren sinbologia hari hartuta (bizitza/heriotza, arriskuak, debekuak, ideologia, lotsa, desira...) gatazka askotaz arituko dira ordu eta laurdeneko emanaldian, gitarra eta perkusioak lagunduta.

'Gorria' es la conversación artística entre la bertsolari Miren Amuriza y la bailaora de flamenco Askoa Etxebarrieta. Ambas se expresan desde la misma raíz, la improvisación. A lo largo de la actuación cada una de ellas comenzará a cantar o a bailar y en la ruta compartirán códigos. Tomando como hilo la simbología del color rojo (vida/muerte, riesgos, prohibiciones, ideología, vergüenza, deseo...) tratarán muchos conflictos durante hora y cuarto, acompañadas de guitarra y percusión.

**Antzerkia / Teatro**

Sarrera / Entrada: 8€

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

Iraupena / Duración: 80'

14 urtetik gorakoentzat

ARTEDRAMAMA, AXUT!,

DEJABU

**'Zaldi urdina'**

Artedrama, Axut eta Dejabu konpainien azken elkarlana, drogak gurean (izan) duen eragina oso gertutik erakusten duena. Aingeru gaztea desagertu egin da techno jaialdi batean beste gazte bat bihotzeak jota hil ondoren. Zaldi Urdina izeneko droga berri batek eragin dio heriotza gazteari, eta poliziak uste dut Aingeru dela horren trapitxeroa. Amets, Aingeruren arreba gaztexero eta bizimodu osasuntsu zalea, bere kabuz hasi da anaiaren bila atzera-kontaktetan. Bilaketan gurutzatuko dituzte gaztearen ondoezak eta ametsak, trafikanteen boterea, indar polizialen konplizitatea eta beste.

Colaboración entre las compañías Artedrama, Axut y Dejabu, que muestra el rastro de las drogas en nuestra sociedad. Aingeru desaparece la noche que otro joven fallece de ataque al corazón provocado por una nueva droga. La policía cree que Aingeru se lo ha pasado. Mientras tanto, Amets, la hermana gaztetxera de Aingeru, quiere localizarlo cuanto antes. En la búsqueda se cruzarán los sueños y frustraciones de los y las jóvenes, el poder de los traficantes, la complicidad policial y demás.

**Antzerkia / Teatro**

Sarrera / Entrada: 8€

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

Iraupena / Duración: 80'

TXALO

**'Ene ba!'**

Txalo konpainiaren helduendako umorezko azken antzezlan. Gure protagonistak aita izan behar du lehen aldiz. Aitatasuna ospatze aldera, arreba eta koinatuaren etxean afalduko du; luze egingo dute Ana bikotekidearen zain eta itxaron bitartean aitatasunak sortzen dituen poztasun eta aldarte onak izango dituzte hizpide. Halako batean ume jaioberriari jarri behar dioten izena aditzera emango du, eta horrek egundoko kalapita sortuko du izenak etxeko giroa erabat gaiztotu arte.

La última obra de humor para adultos de la compañía Txalo. Nuestro protagonista va a ser padre por primera vez y para celebrarlo van a cenar en casa de su hermana y cuñado. Mientras esperan a su pareja Ana disfrutan de una agradable conversación sobre la paternidad... hasta que él desvela el nombre del esperado niño/a. Dicho nombre provoca un estallido de discusión que cambiará repentinamente el ambiente.

**21****Otsaila  
Ostirala****Febrero  
Viernes****22.30****Bergarako Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoa**

Sarrera / Entrada: 8€



## Aratusteetako kontzertua

Karnabaletako giroa berotzen urte dezente daramatzate Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak. Aurten ere kontzertua eskainiko dute Udal Pilotalekuan eta ohi denez sorpresaz beteriko kontzertua izango da, musikaz gozatzeko eta, aldi berean, lagunartean barre egiteko eta ederki pasatzeko. Ea oraingoan zer nolako mozorro eta ikuskizunarekin datozen herriko musikariak. Musika gauza serioa da, bihurria ere zenbaitetan, eta poza ekartzen duenean, gozamen hutsa.

La Banda de Música y la Orquesta Sinfónica llevan ya muchos años animando el Carnaval. Este año no faltarán a la cita con el concierto que ofrecen cada año en el Frontón. Y como es costumbre será un concierto repleto de sorpresas con el doble objetivo de disfrutar de la música y, al mismo tiempo, reír y pasarlo bien entre amigos. Veremos con qué espectáculo y disfraces nos sorprenden esta vez nuestros músicos. La música es cosa seria, también puede ser juguetona, y si además aporta alegría se convierte en un auténtico placer para los sentidos.

**22** Otsaila **Febrero**  
Larunbata **Sábado**

**18.00**

## Familiarendako ikuskizuna / Espectáculo familiar

Sarrera / Entrada: 6€

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

Iraupena / Duración: 70'



KATXIPORRETA



## Bizi dantza. Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Katxiporreta-ren azken ikuskizuna. Lurra sortu zen unetik jirabiraka dantzari hasi zen bere buruaren eta eguzkiaren inguruan. Animaliek ere hala egiten dute. Eta gu ere dantzatzeko gara pozak eta tristurak azaltzeko barruak agintzen digunean. Gure kultura ospatu eta errituak berritzeko. Zangoak luzatuz, gerría mugituz, hegoak astinduz eta ur azpian ere dantzatzeko gara. 'Zatoz gurekin dantzara, atera zure barruko animalia plazara!'

El más reciente espectáculo de Katxiporreta. El mundo después de su creación no ha parado de dar vueltas entre sí mismo y el Sol. Los animales hacen lo mismo. Y nosotros/as también bailamos para sacar nuestras alegrías y tristezas cuando el cuerpo así nos lo pide. Estirando los pies, agitando la cintura, moviendo las alas e incluso debajo del agua. '¡Ven a bailar con nosotros/as, saca tu animal interior!'

**Familiarendako ikuskizuna / Espectáculo familiar**

Sarrera / Entrada: 4€

7 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

Iraupena / Duración: 50'

MARIE DE JONGH



## Ikimilikiliklik

Marie de Jongh-en umeendako azken antzezlan, luzaroan beste ipuin askoren erruz sorginekiko izan ditugun aurreiritziak uxatuko dituena. Ekhi, umetan, hamaika arrazoigatik beldurtzen zen, baina baziren guztien gainetik beldur izugarria eragiten zizkietenak: norbait babesgabe ikusteak eta mendi tontorreko etxola zaharkituan bizi ziren emakume bakarti eta maltzurrek. Poliki-poliki Ekhi beldur ugari gaintitzen joan zen, bere armiarma salbatuz, eta gaur da eguna bera ere 'sorgina' dela.

Última obra teatral infantil de Marie de Jongh, que ayudará a espantar tantos y tantos prejuicios sobre las brujas creados por la literatura. Ekhi se asustaba muchísimo en su niñez, todo le daba miedo y especialmente dos cosas: las situaciones de desprotección y unas mujeres solitarias y malvadas que vivían en la montaña. Poco a poco Ekhi fue haciendo frente a sus miedos y hoy es el día que ella también es una sorgina.



## Musika

Sarrera / Entrada: 8€

AMAK TALDEA  
AIN\_1 TALDEA



## AMAK + AIN\_1

Amak taldea honako musikariek osatzen dute: Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kris Solano. Guztiak emakumeak, guztiak eskarmentu askokoak eta guztiak amak. 90eko hamarkadatik trikitiaren erreferenteak diren lau emakume honi kolore berria ematen.

Eta beraiekin Ain\_1 taldea, musika, poesia eta dantza oso modu irudimentsuan eskaintzen duen Arrasateko emakume laukotea, zuzenean ikusteko ia ezinezkoa dena.

El grupo Amak está formado por las siguientes componentes: Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja y Kris Solano. Todas ellas mujeres, con muchas tablas y todas ellas madres. Cuatro mujeres que son referentes de la triki desde la década de los 90 y que están revitalizando este sonido. Estarán acompañadas por la banda Ain\_1, que combina música, poesía y danza de una forma muy original y atrevida. Este cuarteto de mujeres de Arrasate pocas veces ofrece directos.

**14** Martxoa **Marzo**  
Larunbata **Sábado**

**19.00**

## Antzerkia / Teatro

Sarrera / Entrada: 8€

Hizkuntza / Idioma: Gaztelera

Iraupena / Duración: 70'

LA COMPAÑIA  
DE KRISOL



## 'Yo nunca'

La Compañía del Krisol taldeak gizartean sexuak duen pisuaz eta adiera desberdinetaz hausnartzeko sortutako antzezlanaz, gaztelaniaz. Neska batek harremana hasiko du mutil batekin. Hasieran dena ederra da, baina gero ez. Konturatuko da ezin duela harekin sexu harremanik izan. Igaroko gara pornotik, familiarik, biolazoren kulturatik... 'Yo nunca' da emakumea zentzu guztietan askatzea nahi duen oihu gazte eta garaikoa, gizarteak behar duen aldaketa.

Esta es la obra teatral que La Compañía del Krisol ha creado para que reflexionemos sobre el peso y el significado que el sexo toma en nuestra sociedad. Una chica comenzará una relación con un chico. Al principio todo es hermoso, pero luego no, porque ella se ha dado cuenta de que no puede tener relaciones con él. 'Yo nunca' es un grito joven y actual para liberar a la mujer en todos los ámbitos y cambiar la sociedad.

**21****Martxo  
Larunbata****Marzo  
Sábado****18.00****Familiarendako ikuskizuna / Espectáculo familiar**

Sarrera / Entrada: 4€

3 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

Iraupena / Duración: 47'

LA BALDUFA



## 'Safari'

Txikienei zuzendutako ikuskizun honetan, kontakizunaren mamia bullying-a edo bazterkeria da. Umeek krokodiloaren, lehoiaren eta beste animalien jarreretan beraien mehatxu eta jokabide propioak uler ditzakete. Piñote eta Kalabazinek hezitzaile eta familien kezka berdinak dituzte. Txikienak ere beraien lagunekin krudelak eta mingarriak izan daitezke. Horregatik, Safari honetan parte hartzera eta gozatzera gonbidatzen gaituzte.

En esta obra dirigida al público infantil el hilo conductor es el bullying o el rechazo. Los niños y niñas pueden ver reflejadas sus propias actitudes en las conductas del cocodrilo, el león y de otros animales. Piñote y Kalabazin tienen las mismas preocupaciones que educadores y familias. Los más pequeños también pueden ser crueles y hacer daño. Por ello, nos invitan a participar y a disfrutar de este Safari.

**27** Martxoak / **04** Apirila  
Marzo / Abril

## Musika

**Martxoak 27tik Apirilak 4ra**

Antolatzailea: Bergarako Musika Eskola



## Apirilean Musika

Apirilean Musika programaren 16. ekitaldia ospatuko da martxoaren 27tik apirilaren 4ra bitartean. Aurreko urteetan bezala, musika hitzordu interesgarriak dator programazioa eta musika herriko txoko guztietara iritsiko da aurten ere, Seminarixoa erreferenteetako bat izanik.

Musika Eskolako ikasleak eta kanpotik etorritako musikariak izango dira benetako protagonista, eta herritarrei parte hartzeko eta musikaz gozatzeko gonbitea luzatu nahi diete.

Entre el 27 de marzo y el 4 de abril se celebrará la 16 edición de Apirilean Musika. Al igual que en anteriores ediciones, la programación está llena de citas musicales de gran interés y la música llegará a todos los rincones de Bergara, siendo una vez más Seminarixoa el eje de la programación.

Los y las protagonistas serán los y las músicos de Musika Eskola, así como otros y otras que nos visitarán. Se lanza una invitación a toda la ciudadanía a que participe y disfrute de la música.

**Musika**

Sarrera / Entrada: Doan



## Bergarako Musika Banda

Bergarako Musika Banda, mende eta erdian egindako lanaren ondorioz, erreferentea da bergarar guztientzat eta jarraitzen du uneoro birsortzen eta birrasmutzen, musika zaleoi sorpresa atseginak eskaintzen. Bergara sortu zenean jada bazegoen ia; beti egon da hor, mende luzea dauka bizkar gainean. Baina, hala ere, inoiz baino sasoi onean dago eta zuzendari berriarekin, Enrike Txurruka. Belaunaldiz belaunaldi eutsi dio Bergarako tradizioari eta modernitateari lekua egin dio.

La Banda de Música de Bergara, gracias al trabajo encomiable realizado durante más de siglo y medio, es un referente para todo Bergara. Y sigue reinventándose continuamente, ofreciéndonos a todos y todas los aficionados/as a la música grandes sorpresas. Para cuando se fundó Bergara casi estaba ya; siempre ha estado ahí, cuenta con un largo siglo de vida. Aún así, está en su mejor momento y este pasado año ha estrenado director, Enrike Txurruka. Siempre ha sabido aunar tradición y modernidad.

**03****Apirila  
Ostirala****Abril  
Viernes****22.00**

## Bertso jaialdia

---

Sarrera / Entrada: 8€.

---



## Erramu Zapatu bezperako bertso jaialdia

Erramu Zapatu bezperako bertso jaialdia kuttuna da bergarar eta inguruetako bertso zaleendako. Bergarako Bertso Eskolarekin lankidetzan, aurten ere bertsolari onenetakoekin gozatzeko aukera izango dugu. Garai batean Udal Pilotalekuan ospatzen zen jaialdia Seminarixoak hartuko du hirugarren urtez aurten; eta esan genezake jaialdiak irabazi duela giroan eta goxotasunean. Ohikoa denez, giro aparta ziurtatuta egongo da, eta gai jartzaile lanetan Bergarako Bertso Eskolako kide bat arituko da.

El festival de bertsos de la víspera del Sábado de Ramos se ha convertido en una cita ineludible para muchos/as bergareses/as y para aficionados a los bertsos de alrededores. Una vez más y en colaboración con Bergarako Bertso Eskola tendremos la oportunidad de disfrutar con los/las mejores bertsolaris. Seminarixoa acogerá ya por tercera vez el festival que se venía celebrando previamente en el frontón. Podemos decir que con el cambio la cita ha ganado en ambiente y es más acogedor. No habrá cambios en el planteamiento donde un o una componente de Bergarako Bertso Eskola pondrá a bertsolaris en canción.

**25****Apirila  
Larunbata****Abril  
Sábado****17.00  
18.30**

## Familiarentzako dantza ikuskizuna


Sarrera / Entrada: 4€

3 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

Iraupena / Duración: 30'

ELIRALE KONPAINIA



## 'O!' Dantza garaikidea

Elirale konpainiak 3 urtetik gorako publikoarentzat zuzendutako dantza ikuskizuna eskainiko du, ordu erdiko iraupena izango duena.

O! Oihantxo, Orekatxo, Olio, Ostinato, Oilo, Ozeano, Beñat ErmitañO, UnibertsO, Olimpo, JariO, Ostiko, Olivier, Oleg...

O! hau mirespenaren O da. Haur txikiek ongi dakite O hau marrazten beraien aho borobilarekin. Goazen heldu gisa haien ondora O horretaz berriz goatzera. « O! » dantza garaikide bakarkako bat da non dantzariak kantatzen eta musika jotzen duen.

La compañía Elirale ofrecerá un espectáculo de danza dirigido al público a partir de 3 años, de una duración de media hora.

O! Oihantxo, Orekatxo, Olio, Ostinato, Oilo, Ozeano, Beñat ErmitañO, UnibertsO, Olimpo, JariO, Ostiko, Olivier, Oleg...

O! es la O de la admiración. Los niños y niñas pequeñas saben muy bien dibujar una O con la boca. Vayamos los adultos a disfrutar con las O-s. «O!» es un espectáculo de danza contemporánea donde la bailarina canta e interpreta música.

## Musika

Sarrera / Entrada: Doan.

### Bergarako Musika Banda



## Bergarako Musika Banda

Begarako Musika Banda, mende eta erdian egindako lanaren ondorioz, erreferentea da bergarar guztientzat eta jarraitzen du uneoro birsortzen eta birrasmutzen, musika zaleoi sorpresa atseginak eskaintzen. Bergara sortu zenean jada bazegoen ia; beti egon da hor, mende luzea dauka bizkar gainean. Baina, hala ere, inoiz baino sasoi onean dago eta zuzendari berriarekin, Enrike Txurruka. Belaunaldiz belaunaldi eutsi dio Bergarako tradizioari eta modernitateari lekua egin dio.

La Banda de Música de Bergara, gracias al trabajo encomiable realizado durante más de siglo y medio, es un referente para todo Bergara. Y sigue reinventándose continuamente, ofreciéndonos a todos y todas los aficionados/as a la música grandes sorpresas. Para cuando se fundó Bergara casi estaba ya; siempre ha estado ahí, cuenta con un largo siglo de vida. Aún así, está en su mejor momento y este pasado año ha estrenado director, Enrike Txurruka. Siempre ha sabido anar tradición y modernidad



**Musika**

Sarrera / Entrada: 8€

**Ainara Ortega. 'ONIN'**

Ainara Ortega Barrenetxea musikari eta aktoreak 20 urteko esperientzia dauka, eta emanaldietan emozioa eta sakontasunaz gain, umorea ere tonatan uztartzen du. Umorea euskaraz eta euskaratik, euskañolez, Cadizeko gipuzkera, gaizki ulertuak, ulertu nahi ez ditugunak, Bortzirietako ahoskerak, biraoak, protesta kantua, argentinar folklorea, txarangen pasodoble erritmoak, herriko banden *bailableak*... Eta alboan ditu ñaki Salvador piano eta soinuarekin, eta Luis Camino perkusioarekin.

La música y actriz Ainara Ortega Barrenetxea cuenta con 20 años de experiencia, y en sus actuaciones, además de emoción y sentimiento, ofrece humor a toneladas. Humor en euskera y desde el euskera, en euskañol, gipuzcoano de Cadiz, malentendidos, otros que no queremos entender, pronunciaciones de Bortziria, juramentos, canción protesta, folklore argentino, ritmos de pasodoble txarangero, *bailables*... Y a su lado ñaki Salvador al piano y al acordeón, y Luis Camino a la percusión.

**Familiarendako ikuskizuna / Espectáculo familiar**


Sarrera / Entrada: 4€

Adin gomendatua 3-7 urte

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

Iraupena / Duración: 45'

GLU GLU TALDEA

**'Erbia eta dortoka'**

Glu Glu taldeak 'Erbia eta Dortoka' alegia mitikoa taulara eramango du. Kondaira zaharrek haurrak dibertitzeaz gain, hezteko ere balio dute. Umeek primeran pasatzen duten bitartean adimena garatzen laguntzen dien kontakizunak dira. Kasu honetan, lanaren, konstantziaren eta ahaleginaren garrantziaz jardungo dira.

'La liebre y la tortuga' es una de las fábulas clásicas más conocidas que lleva al teatro la compañía Glu Glu. Las fábulas son una buena vía para entretener y educar a las niñas y los niños, mientras ayudamos a desarrollar su imaginación. En este caso expondrán la importancia que tienen el esfuerzo, la constancia y el trabajo.

**24****Maiatza  
Igandea****Mayo  
Domingo****12.30****Musika**

Sarrera / Entrada: 2€ / 4€

**Bergarako Musika Eskola**

## Begarako Musika Eskolako Udaberriko kontzertua

Maiatzaren 24ean Begarako Musika Eskolako ikasleek aspalditik klasikoa den kontzertua egingo dute Udal Pilotalekuan, XXXI. Udaberriko Jai kontzertua. Honako taldeek egingo dute emankizuna: Orkestra Sinfonikoa, Gazte Banda, Haurren eta Hasiberrien abesbatzak, Txistulari taldea, Trikitilari taldea, Dantza taldea eta Suzuki taldea. Talde bakoitzak interpretatuko dituen piezez gain, emanaldiaren bukaeran talde guztiak batera arituko dira agertoki gainean. Emanaldiak ordu eta laurden inguruko iraupena izango du.

El 24 de mayo se celebrará el concierto de Begarako Musika Eskola que es desde hace mucho un clásico, XXXI. Udaberriko Jai kontzertua. Participarán los siguientes grupos: Orkestra Sinfonikoa, Gazte Banda, Haurren eta Hasiberrien abesbatzak, Txistulari taldea, Trikitilari taldea, Dantza taldea y Suzuki taldea. Además de las piezas que interpretará cada grupo, al final de la actuación interpretarán una pieza conjunta. La actuación tendrá una duración aproximada de hora y cuarto.



S E M I N A R I X O A

KULTURA PROGRAMAZIOA

2020 BERGARA

MUSIKA

DANTZA

ANTZERKIA

HAURRENTZAT EMANALDIAK

